

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
MADDI SOROA

Lesaka (Nafarroa)

Sanferminak baino gehiago

Sanferminak. Horixe da euskal herritar askori Lesaka aditu eta burura etorriko zaion lehen hitza. Txarangak karririk alaitzen dituen bitartean, festa lehertu eta sekulako giroa sortzen da herrian.

Lesaka, ordea, hori baino gehiago da. Sanferminetaz harago, alde zaharraren xarmak eta inguruko hamabi auzoen nortasunak Lesaka urte osoan zehar bizirik dagoela erakusten dute.

Ez da zaila Lesakako herrigunea ezagutzea, txikitxoia izanik, elkarretik gertu baitaude gune interesgarriak. Kaleetan galtzea da horretarako modurik egokiena, beti ere Udaletxea dagoen Plaza Zaharra hartuz erreferentzia. Erraz aurkitzen da plaza: hiru-

ki formakoa da eta teilatu berdedun kioskoa du erdian. Herria haren inguruan antolatuta dagoela esan daiteke.

Plazan dago udaletxea edo herriko etxea. Ihesi goazela, Zabaleta dorrearekin egingo dugu topo Arretxea kalean barrena abiatzen bagara.

XV. mendean eraiki zuten betebeharr militarretarako; aspaldi ahaztutako funtzioa. Barnetik hutsik dago, kanpotik begiratuta tente ageri da, hondasun arkitektonikoaren erakusgarri bihurtuta. Dorretik gertu, Etxezaharra aurkituko dugu. 1541az geroztik zutik dirauen etxebizitza, egun jendearen joan-etorri handia duen taberna bilakatu da. Minyurienea eta Bordienea dira herrigunean bisitatu ditzakegun beste bi eraikin zahar.

XIV. mendekoa da lehena, XVIII.ekoa bestea. Eta ezin aipatu gabe utzi Tours-eko San Mar-





Aita Donostiaren omenezko harrizko eskultura eta kapera txikia, Agiña mendian.

tinen parrokia-eliza, aldapa baten gainean, herriari diosala eginez ari balitz bezala hartu baitu tokia herri-gunearen ekialdean. Bere kokapen eta altuerari esker, Lesakaren ikuspegi orokorraz gozatzeko aukera eskaintzen du. XVIII. mendeko erre-
taula eta Luis Salvador eta Carmona-
ren eskulturak ikus ditzakegu bertan.

Koloreen xarma

Artea hain gogoko ez duenak ere goza dezake Lesakako kaleetan. Karrika estu eta motzek, kolore bizidun leihoek, Onin ibaiaren gaineko zubiek... postal ederrak osatzen dituzte. Lesakak badu horrelako xarma berezia, kostaldeko herrietan askotan aurkitzen duguna. Kalean gora eta behera erosketa poltsekin topatuko ditugu batzuk, erroa zintzilikatzen beste batzuk, etxe bateko paretan esku pilotan jokatzen gazte-
txoenak. Euskarazko jarioa da ohiko-
ena Lesakan, hamar biztanletik zortzi baitira euskaldunak. Bertako euskal-
kiak sendo eusten dio, gainera.

Heldu nahiz gazte, taberna batean sartu eta irribarrez hartuko zaituzte. Lesakarrak alaiak eta zabalak dira. Herri guztiek dute beren xarma, bakoitzak berea, berezia eta bakarra. Lesakaren berezitasuna herritarren izaeran, etxeen arkitektura berezian eta kolore festan dagoela esan gene-

Zubigaineko dantza.



DANTZAN.COM

zake. Ezin ahaztu, ordea, Lesakatik abiatuta inguruan aurkituko ditugun auzoek duten paisaia berde, aldapatsu eta zoragarria.

Auzoetan barna

Alkaiaga, Auzoberri, Biurrana, Endara, Endarlatsa, Frain, Izotzaldea, Katzapegi, Nabaz, Otsango, Zala eta Zalain. Horra herrigunetik at sakabanatutako lesakar auzoak. Mendi, zelai eta baserriz jositako paraje ederra osatzen dute. Bianditz gailurra da lur horietako gunerik garaie-
na: 840 metro.

Lur horietan daude Endara-San Anton eta Domiko urtegiak, ikusmira zoragarria dutela. Aipatzekoa, halaber, Aita Donostiaren omenez egindako eskultura, Agiña mendian, Zalatik gertu. Hamaika ibilaldi egiteko aukera eskaintzen du inguru osoak, distantzia motz nahiz luzekoak, desnibel altu nahiz baxukoak, oinez, bizikletaz, nahiz autoz egitekoak.

Jaiak

Uztailaren 6tik 10era Sanferminak ospatzen dira, jakina denez, baina herriko patroia San Martin da. Jaietako ekitaldirik ospetsuena, zalantza gabe, Zubigaineko dantza da, ibai ertzeko petriren gainean egiten dena.

Udazkenean Bortzirietako Azienda Feria egiten da. 1499tik irauten duen ospakizun horrek data aldakorra du: azaroko bigarren hamabostaldiko asteazken eta ostegun batez izaten da. Eta abenduaren 24an, Olentzero. Lesakan omen dago ospakizun horren jatorria. ■



**gaztelupeko
HOTSAK**

Errabel 23
20085 SORRALUE
Tel: +34 943 753014
Fax: +34 943 750139
gaztelupeko@hotsak.com
www.hotsak.com




KARELEAN
56, Getelak



MORAU TA AGOTAK
Kalamidadiak



THUNDER EXPRESS
Republic Disgrace



JOSERRA SENPERENA
Dardaren interpretazioa



**GAINSBURG
GAINBEGIRATUZ**